

GR 38 ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEA RUTA DEL VINO Y DEL PESCADO

Ardoaren eta arrainaren ibilbidea antzina mandazainek eta merkatariek Bizkaiko arantzeta-portu nagusien eta Arabako Errioxaren artean egiten zuten bidea zen, produktu horien eta beste batzuen merkatarizarako.

La ruta del vino y del pescado era la ruta que antiguamente recorrían arrieros y mercaderes entre los principales puertos pesqueros de Bizkaia y Rioja Alavesa, para el comercio de estos y otros productos.



GOMENDIOAK RECOMENDACIONES


- Saia zaitez etapak norbaitekin egiten, eta esan nora zoazen eta noiz etorriko zaren.
- Eraman beti behar den beste hornigailu (ura, janaria, jantziak, botikina, mugikorra...).
- Ez piztu surik, horretarako diren lekuetan izan ezik, eta erretzailera bazara gorde zure zigarrokinak.
- Gomendagarria da mugikorraren bateria ondo kargatuta eramatea.
- Ez irten seinalezatutako bideetatik, errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak.
- Procura realizar las etapas en compañía y deja aviso de dónde vas y cuándo vuelves.
- Lleva siempre equipo suficiente (agua, alimentos, ropa, botiquín, móvil...).
- No enciendas fuego, salvo en los lugares destinados a ello y si fumas llévate las colillas.
- Es aconsejable llevar la batería del móvil bien cargada.
- No te salgas de los caminos señalizados, respeta el entorno y a los demás senderistas.



Etapa honek Albainatik Pariza eta Sáseta herri trebiñarretara eramango gaitu. Gero, Trebiñuko konderria utzi eta Ayuda ibaiko haitzartea zeharkatuko dugu Okinaraino. Gasteizko mendietako basoak jaitsi ondoren, Lautadara iritsiko gara azkenean. Etapa, Arabako Lautadako zaindaria den Estibalizko Andra Mariaren santutegi erromanikoan bukatuko dugu.

Esta etapa nos llevará desde Albaina a los pueblos treviñeses de Pariza y Sáseta. Abandonaremos el Condado de Treviño recorriendo el desfiladero del río Ayuda hasta Okina y tras bajar las boscosas praderas de los Montes de Vitoria llegaremos a la Llanada. El final de esta etapa será el espléndido santuario románico de Nuestra Señora de Estibaliz, patrona de la Llanada Alavesa.

23,2 km 450 m 6h 45' MIDE 1-2-2-4



- Ingurunean badago arriskurik El medio no está exento de riesgos
- Bidezidorrak edo norabidea adierazten duten seinaleak Sendas o señalización que indica la continuidad
- Ferra-bideetan egindako ibilaldia Marcha por caminos de herradura
- 6 ordutik gorako eta 10 ordura arteko benetako ibilaldia Más de 6 h y hasta 10 h de marcha efectiva

Bidezatia / Tramo ALBAINA > OKINA

km 0 **ALBAINA.** Elizaren eta hilerriaren ondoan dagoen plazatik abiatuko gara. Ibilbidea sakabanatuta dauden erkamezti eta artea bakan batzuk dituzten zereal zelaien artean igarotzen da. Pariza herrixkatik igaro eta GR 282rekin bat egin ondoren, Sáseta herrira helduko gara, Ayuda ibaiaren arroila ederraren sarrerara.

km 6 **SÁSETA.** Paisaia aldatu egiten da Sasetatik aurrera, haitzartera sartzean. Amildegi eder batean sartuta dagoen Ayuda ibaia, bere xarma guztia erakutsiko digu: kristalezko ur-jauziak, putzu ederrak eta ondo kontserbatutako ibaiertzeko baso bat. Okinara iritsi aurretik, errota zahar baten ondotik pasatuko gara, oraindik ere ubidea eta presa kontserbatzen ditu honek; hortik gutxira Siloko haitzak herri txiki honetara ongi etorria emango digu. Haren inguruan, 45 metroko sakonerako Okinako leizea dago, bere kondairengatik ospetsua.

km 0 **ALBAINA.** Partimos de la plaza de Albaina junto a la iglesia y el cementerio. El itinerario discurre entre campos de cereales salpicados con algunos bosquetes de quejigos y encinas. Pasamos por la pequeña localidad de Pariza y unimos nuestros pasos al GR 282 para alcanzar Sáseta, puerta del hermoso cañón del río Ayuda.

km 6 **SÁSETA.** El paisaje cambia a partir de Sáseta al internamos en el desfiladero. El río Ayuda, encajonado en un precioso barranco, irá desvelándonos sus encantos: saltos de agua cristalina, preciosas pozas y un bien conservado bosque de ribera. Antes de alcanzar Okina pasaremos junto a su viejo molino que conserva el canal y la presa y nos dará la bienvenida a esta pequeña población la "Peña del Silo", en cuyos alrededores se encuentra la sima "Silo de Okina" de 45 m profundidad y que es famosa por sus leyendas.




ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEA RUTA DEL VINO Y DEL PESCADO

GR 38

3

ALBAINA > ESTIBALIZ

Km 23,2 450m 6h 45'



IKURRAK LEYENDA

- GR 38
- Beste GRak / Otros GRs
- Iturria / Fuente
- Eraikin erlijiosoa / Edificio religioso
- Interes puntua / Punto de interés
- Taberna / Jatetxea / Bar / Restaurante
- Aterpetxea / Albergue
- Ostatu turistikoak / Alojamientos turísticos

ALBAINA > OKINA

- Ibilbidearen jarraipena / Continuidad del sendero
- Norabide aldaketa / Cambio de dirección
- Okerreko norabidea / Dirección equivocada
- Ehun urteko gorako haginak / Tejos centenarios



EZ GERATU EZAGUTU GABE! ¡NO TE LO PIERDAS!

Ayuda ibaiak Gasteizko mendietako era tertziarioko arroketan (margak eta konglomeratuak, batez ere) zehar irekitako haitzarte estu eta sakona, edertasun eta ingurumen-interes handiko natura-gunea da. Arrolako sakanean, milaka urte dituen haginez osatutako basoa erreserba botaniko balioetsu bat da. Horregatik eta bisoi europarraren (Mustela lutreola) populazioengatik, Ayuda ibaiaren haitzarte Natura 2000 Sarearen parte da.



Una estrecha y profunda garganta abierta por el río Ayuda en rocas de la Era Terciaria (margas y conglomerados, principalmente) de los Montes de Vitoria, constituye un espacio natural de gran belleza y de interés medioambiental. En el barranco de Arrola, un bosque milenario de tejos constituye una valiosa reserva botánica. Ello, junto con la presencia de poblaciones de visión europeo (Mustela lutreola), ha motivado que el desfiladero del río Ayuda forme parte de la Red Natura 2000.



Trebiñuko konderrian penintsulako haitzulo artifizial garrantzitsuenetako bat dago. Duela 1.500 urte baino gehiago, leize hauetan eremitak bizi izan ziren, gurtza erlijiosoak egiten zituztenak. Kobazulo hauetako batzuetan, Las Gobaskoetan kasu, animalien irudien eta inskripzioen grabatuak kontserbatzen dira.

En el Condado de Treviño se localiza uno de los conjuntos de cuevas artificiales más importantes de la península. Hace más de 1.500 años estas cuevas fueron habitadas por eremitas, que practicaban cultos religiosos. En algunas de éstas cuevas, como las de Las Gobas, se conservan grabados de figuras de animales e inscripciones.



TELEFONO INTERESGARRIAK TELÉFONOS DE INTERÉS

Arabako Erromanikoa: Estibalzko Santutegia eta Erromanikoaren Interpretazio Zentroa
El románico en Álava: Santuario de Estibalz y Centro de Interpretación del Románico

660 766 383

Vitoria-Gasteizko turismo bulegoa
Oficina de turismo de Vitoria-Gasteiz

945 161 598

Larrialdiak
Emergencias



Bidezatia / Tramo OKINA > ESTIBALIZ

km 11,5- **OKINA.** Ibaia elizaren bila joateko gurutzatu eta Errege kaletik jarraituko dugu ezkerretara amildegian zehar lagun izan dugun GR 282aren sailhesbidea albo batera utziz. Ibaia berriro gurutzatu ondoren, ibilbidea larre eta pago eta hurritzez osatutako zuhaitzietan artetik ibiliko da, Gasteizko Terminoko sarrera adierazten duen mugarriraino. Handik, pagoz betetako Gasteizko mendietako mendi-hegal ederretatik behera jaisten hasiko gara. Une batez GR 25 "Arabako Lautadako Itzulia"-rekin bat egin ondoren, erkamezti bat gurutzatzen gaudela, basoa zabaldu eta Lautadako panoramika eder batez gozatzeko dugu. Ureztatze-putzu baten ondoan pista bat hartu eta Gasteiz-Lizarra errepidera jaitsiko gara, Andollu ingurura.

km 22,1- **ANDOLLU.** Herriraino iritsi gabe, ezkerretara Gasteizerako noranzkoan metro batzuk egin eta eskuinetara dagoen bidezidor bat jarraituko dugu. Alboetan platan faltsuak dituen bidexka bat ikusiko dugu, "La Avenida" izenez ezaguna, zuzenean santutegiraino igotzen dena. Iritsi aurretik, Villafranca parean, barrualdeko Donejakue bidearekin gurutzatuko gara. Santiagora doan bide hau Gipuzkoatik dator Bide Frantsesarekin elkartzeko.

km 23,2- **ESTIBALIZ.**

km 11,5- **OKINA.** En Okina cruzamos el río buscando la iglesia y seguimos por la calle Real dejando a la izquierda el desvío del GR 282 que nos ha acompañado a lo largo del barranco. Una vez cruzado de nuevo el río, el itinerario empieza a alternar tramos por pastos y bosques de hayas y avellanos hasta alcanzar el mojón que nos indica la entrada en el Término de Vitoria-Gasteiz. Desde aquí comenzamos el descenso por las hermosas laderas plagadas de hayas de los Montes de Vitoria. Tras coincidir momentáneamente con el GR 25 "Vuelta a la Llanada Alavesa" cruzamos un quejigal que, al abrirse, nos regala una bonita panorámica de la Llanada. Junto a una balsa de riego se toma la pista que desciende hasta desembocar en la carretera Vitoria-Estella cerca de Andollu.

km 22,1- **ANDOLLU.** Sin alcanzar el pueblo seguimos unos metros a la izquierda dirección Vitoria y abandonamos la carretera a la derecha por una vereda flanqueada por falsos plátanos, conocida como "La Avenida" que asciende directamente hasta el santuario. Antes de alcanzarlo, a la altura de Villafranca, nos cruzaremos con el Camino de Santiago del Interior que, procedente de Gipuzkoa, se dirige al encuentro del Camino Francés.

km 23,2- **ESTIBALIZ.**



KONTUAN HARTU BEHARREKOAK A TENER EN CUENTA

• Etapa honetan GR 38a GR 282 Artzaintzaren Bide Naturala eta GR 25 Arabako Lautadako Itzuliarekin gurutzatzen da. Arreta berezia jarri bidezidor hauen bidegurutzetan, marka gorriak eta zuriak beste norabide batean ez jarraitzeko.

• En esta etapa el GR 38 coincide con el GR 282 Camino Natural del Pastoreo y el GR 25 Vuelta a la Llanada Alavesa. Presta especial atención en las bifurcaciones con estos senderos para no seguir las marcas rojas y blancas en otra dirección.

• Gaur egun ezin da Estibalizen gaua igaro. Gertuen dagoen lo egiteko lekua Argomanizko paradorea da, baina baliteke aukera hau aurrekontu batzuetatik kanpo egotea. Guztiz bideragarria den beste aukera bat taxi bat hartzea litzateke. Estibaliz Gasteiztik 10 minutura dago autoz. Beraz, Gasteizen ostatu hartu ahal izango litzateke eta hurrengo egunean Estibalizera itzuli.

• Actualmente no es posible pernoctar en Estibaliz. Lo más cercano es el parador de Argomaniz, aunque es posible que se escape de algunos presupuestos. Otra opción perfectamente viable es tomar un taxi (Estibaliz está apenas a 10 minutos en coche de la capital alavesa) para alojarse en Vitoria-Gasteiz, y volver al día siguiente.

2021: Covid 19ren pandemian gauden bitartean, eutsi eskuen higieneari eta distantzia sozialari, eta jarraitu agintariek mugikortasunari edo maskaren erabilerari buruz emandako aginduei. Horrez gain, komeni da aldez aurretik egiaztatzea ostatu eta beste zerbitzu batzuen irekitzeko ordutegiak eta egutegiak.

2021: Mientras nos encontremos en pandemia de Covid 19, extrema la higiene de manos y distancia social, y sigue las indicaciones de las autoridades referentes a la movilidad o el uso de mascarillas. Además, es recomendable comprobar previamente los horarios y calendarios de apertura tanto de alojamientos como de otros servicios.

turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/

